



**Espediente-zk.: 005/18**

**BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIAREN karatula**

Kontratu mota: **HORNIDURA-KONTRATUA**

Prozedura: **IREKIA**

**I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.**

**1.- KONTRATUAREN XEDEA.**

- 1.1.- Definizioa:** kontratu honen xedea, Haurreskolak Partzuergoko haurreskolak termoez hornitzeko enpresa bat kontratatzea da.
- 1.2.- Kontratuaren bidez bete behar diren premia administratiboak:** kontratu honen bidez termoez hornitu nahi dira haurreskolara haurreskolan bertan bazkaltzeko etxean egindako janaria ekartzen duten haurren beharrei erantzuna emateko, eta horrela ere haurreskoletako instalazioetan jaki horien egoera ona ziurtatu ahal izateko.
- 1.3.- Sortakako zatiketa:** Ez.
- 1.4.- Erregulazio harmonizatuko kontratua:** Ez.
- 1.5.- CPA-2008 sailkapen estatistikoaren kodea** (451/2008 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko apirilaren 23koa): 46.49 Etxerako erabilerarako beste artikuluen handizkako merkataritza zerbitzuak.
- 1.6.- CPV nomenklaturaren kodea** (Europako Batzordearen 213/2008 (EE) Erregelamendua, 2007ko azaroaren 28koa, kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV) onartu zuen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena): 39.22.1150-3 Termoez.

**2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK.**

Baldintza administratibo zehatzen agiriko 2. klausulan adierazi direnak.

**3.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:**

Hauxe da, publikotasun eta adjudikatzeko prozesuaren ondorioetarako kontratuaren balio zenbatetsia: 170.000 € (BEZa kenduta).

**4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA** (eskaintzek ezin dituzte gainditu adierazitako guztizko zenbatekoak).

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua: 85.000 euro + 17.850 euro (BEZa). Guztira 102.850 euro.

**5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK.**

**5.1.- Prezioa zehazteko sistema:** prezio unitarioak.

Termoaren gehieneko prezio unitarioa BEZ gabe hurrengoa da:

ARTIKULUA	ZENBATEKOA (euroak)
Termoa	18

Prezio horiek gehieneko prezioak dira, ondorioz horiek gainditzen dituzten eskaintzak ezeztatuak izango dira.

## 5.2.- Prezioa ordaintzeko modua:

- Ordainketa bakarra: Ez.
- Ordainketa partzialak: Bai. Kontratuak entrega partzialak egitea aurreikusten duenez, kontratistak entrega partzial horiei dagozkien hornidurak kobratzeko eskubidea izango du.

Hau izango da ordainketa partzialen aldizkakotasuna: termoen eskabide bakoitza egitean, dagokion faktura aurkeztu ondoren (kontratazio-organoak ontzat eman beharko du).

## 5.3.- Konturako ordainketak, prestalanak egiteagatik: Ez dago halakorik.

## 5.4.- Prezioak berrikustea: Ez dago halakorik.

## 6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN EXEKUZIO-EPEA ETA IRAUPENA.

**6.1.- Kontratuaren iraupena:** produktua agortu arte.

**6.2.- Hasteko eguna:** 2019ko irailak 1.

**6.3.- Kontratu luzeatzea:** Bai.

- Luzapenaren iraupena: ikasturte bat, zehazki 2020-2021 ikasturtea (produktua agortu arte).
- Prezioa eguneratzea: Ez.

**7.- ARGITALPEN-GASTUAK.** Adjudikaziodunak ordaindu behar dituen argitalpen-gastuen gehieneko kopurua, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorraren (APKLEO) 67.2 artikulua araberak: Ez dira aurreikusten.

## 8.- BERMEAK.

**8.1.- Behin-behineko bermea:** Ez.

**8.2.- Behin betiko bermea:** Bai, esleipen-zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

**8.3.- Berme osagarria:** Ez.

**8.4.- Zilegi da bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez egiaztatzea bermea eratu izana:** Ez.

**8.5.- Zilegi da bermeak prezioa atxikita eratzeko:** Ez.

**8.6.- Prestazioaren zati bat bakarrik onartzen denean, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak:** Ez.

Bermeak honen alde eratuko dira: HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ALDE. IFZ: P0100385D.

**9.- ASEGURUAK.** Enpresa adjudikaziodunak beraren jardute-eremuan legez eskatutako nahitaezko aseguruak eduki beharko ditu, bai eta baldintza administratibo zehatzen agirian eskatzen direnak ere.

**10.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO LEKUA:** Haurreskolak Partzuergoko egoitza eta honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dituen haurreskolatan.

## **11.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK.**

Kontratu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 6. artikuluan jasotako bi hizkuntza ofizialen araubidea bete behar du -bi hizkuntza ofizialen erabilera Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko oinarritzko 10/1982 Legean dago araututa, baita hura garatzen duten arauetan ere-.

Bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira kontratua exekutatzean, horixe baita kontratuaren xede den prestazioa exekutatzeiko baldintzetako bat. Baldintza hori ez betetzeak kontratu honetako beste zeinahi klausula ez betetzearen ondorio berberak izango ditu. Hala ere, kontratua exekutatzeiko baldintza bereziak direla-eta, hura ofiziala ez den beste hizkuntza batean edo batzuetan exekutatu behar dela ezar daiteke baldintza teknikoan agirian.

Kontratua exekutatzean, bidenabar, baldintza-agiriko hizkuntzari buruzko klausulan ezarritako baldintza zehatzak beteko dira.

## **12.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.**

Baldintza-agirietan ezarri direnak.

## **13.- KONTRATUEN ARABERAKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK.**

Baldintza-agirietan ezarri direnak.

## **14.- KONTRATUEN ARABERAKO ZIGORRAK.**

- a) Berandutzeagatik: SPKL-aren 193 artikuluan ezarritakoak.
- b) Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik: kontratu-aurrekontuaren % 10era arte (SPKL-aren 192.1 art.).
- c) Kontratuak definitutako prestazioak ez betetzeagatik (SPKL-ko 192.2 artikulua): BAA-n edo dokumentuan zehazten diren zigorrak jartzea edo kontratua bertan behera uztea erabakiko da.
- d) SPKL-aren 215 artikuluan ezarri diren azpikontratazio-baldintzaren bat edo baldintza-agiri honen karatulan azpikontratazioarako ezarri den gehieneko muga ez betetzeagatik: azpikontratuaren % 50era arte.
- e) Kontratua exekutatzeiko baldintza bereziak gaizki betetzeagatik: kontratu-aurrekontuaren % 10era arte (SPKL-aren 202.3 art.).

## **15.- AZPIKONTRATAZIOA.**

SPKLren 215. Artikuluan jasotako eskakizunak bete beharko dituzte azpikontratuak egiteko orduan. Edozelan ere, kontratistak alde z aurretik eta idatziz jakinarazi beharko du azpikontratuak egiteko asmoa, eta honako hauek adieraziko ditu: prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta azpikontratistaren ordezkari legala(k). Era berean, behar bezala justifikatu beharko du azpikontratistak hori exekutatzeiko gaitasuna duela, alegia, behar diren baliabide teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia, eta kontratatzeiko debekurik ez duela egiaztatu beharko du, SPKLren 71.artikuluari jarraikiz.

## 16.- KONTRATUA ALDATZEA.

**Ezusteko aldaketak:** Ezusteko aldaketak interes publikoko arrazoiengatik soilik barneratu ahal izango dira edota SPKL-ko 205. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat emanez gero eta bertan ezarritako mugak betez, betiere.

**17.- PRESTAZIOEN BERMEALDIAK:** Bai, horniketa jasotzen den momentutik urte bete oinarritzat hartuta jasotzen den emate-agiriaren sinadura data.

## 18.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK.

SPKL-ko 211. artikuluan ezarritakoez gain, honako hauek dira kontratua suntsiarazteko kausa espezifikoak:

- Kontratuaren xede den prestazioa eta eskaintzako edukiak ez betetzea edo gaizki betetzea.
- Kontratuan ezarritako funtsezko betebeharrak ez betetzea.
- Lan-arloko segurtasunari eta osasunari buruzko araudia eta klausulak ez betetzea.

## II.- KONTRATU-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK, ENPRESEN ETA ESKAINTZEN PARTE-HARTZEA ETA HAUTAKETA.

### 19.- KONTRATAZIO-ORGANOA ETA INFORMAZIOA ETA BALDINTZA-AGIRIAK ESKURATZEA.

**19.1.- Entitate adjudikatzailea:** HAURRESKOLAK PARTZUERGOKOA.

**19.2.- Organoak zehaztea:**

**19.2.1.- Kontratazio-organoa:** Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea.

**19.2.2.- Kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoa:** Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

**19.3.- Espedientea izapidetzen duen bulegoa:** HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO Prebentzio Zerbitzua.

**Helbidea:** Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina

**Herria eta posta-kodea:** Eibar - 20600

**19.4.- Harremanetarako:**

- **Telefono-zk.:** 943.82.14.96
- **Faxa:** 943.12.07.37
- **Helbide elektronikoa:** [prebentzioa@haurreskolak.eus](mailto:prebentzioa@haurreskolak.eus)

**19.5.- Kontratatzailearen profila, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria Interneten:** [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)

**19.6.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko azken eguna:** 2019ko urtarrilak 15.

**20.- AURREKONTU-IZENDAPENA:** 0001.422.23771, 0048.422.23771 eta 0020.422.23771.



**20.1.- Gastua kofinantzatuta dago:** Ez.

**20.2.- Aurretiko izapidetzea:** Ez.

**21.- IZAPIDEAK, ETA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA.**

**21.1.- Izapidetzea:**

- Arrunta: Bai.

**21.2.- Prozedura:**

- Irekia: Bai.
- Prezioa da eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra: Ez.
- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide daude: Bai.

**22.- LIZITAZIO ETA KONTRATAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA:** Ez.

**23.- ESKAINTZAK EDO PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.**

**23.1.- Aurkezteko azken eguna eta ordua:** 2019ko urtarrilak 30arte, 13:00ak baino lehen.

**23.2.- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko modua:** A, B, C eta D gutun-azalak, baldintza administratibo zehatzen agirian eta karatula honetako puntu egokietan adierazten den edukiarekin.

- A gutun-azala: Erantzukizunpeko deklarazioa.
- B gutun-azala: Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak.
- C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa, eta formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak.
- D gutun-azala: Laginak.

**Gutun-azal guztiak behar bezala identifikatu behar dira, honako datu hauek jasota:**

<b>GUTUN-AZALA:</b>	<b>DOKUMENTAZIOA:</b>
Kontratuaren xedea:	
Espediente-zenbakia:	
Sozietatearen izena:	IFK:
Sozietatearen helbidea:	
Ahalordedunaren izena:	NANa:
Harremanetarako telefonoa:	
Harremanetarako pertsona:	
Helbide elektronikoa:	

**23.3.- Aurkeztu behar den dokumentazioa:**

**A GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA**

- **Erantzukizunpeko deklarazioa** (baldintza-agiri honetako 0 eranskinean jasotako ereduaren arabera). Horren bidez, lizitatzailerak haxe adierazten du: kontratuak egiteko baldintzak betetzen dituela, eta, zehazki, baldintza-agiri honetan

ezarritakoak; hori egiaztatzen duten dokumentuak dauzkala, eta kontratazio-organoak hala eskatzen duen bakoitzean, dokumentazioa aurkeztuko duela; eta, zehatz-mehatz, adjudikazioa egin aurretik aurkeztuko duela, adjudikazioduna izatea proposatzen badiote.

Deklarazioaren edukiak ereduaren araberakoa izan beharko du, eta lizitaziotik baztertu ahal izango dira eredia betetzen ez duten deklarazioak.

- **Eranskinak, hala dagokionean (ikus 14. klausula, ereduzko baldintza-agiriaren I. atalean).**

Proposamenak aurkezteko azken eguna izango da legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko ezarritako betekizunak betetzen diren egiaztatzeko eguna.

**B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

Lizitazaileek **paperean eta euskarri informatikoan (CD, DVD edo USB)** aurkeztuko dute eskaintza. Bertan ezin da inola ere jaso eskaintza ekonomikoko dokumentu garrantzitsurik, ezta formulak aplikatuz ebaluatu daitekeen alderdirik ere. Horrelakorik sartuz gero, **lizitaziotik baztertu ahalko da eskaintza.**

*(Oharra: euskarri informatikoan (CD, DVD edo USB) aurkeztu behar den B gutun-azaleko eskaintzan ezin da jaso eskaintza ekonomikoko dokumenturik, ezta formulak aplikatuz ebaluatu ezin den gainerako irizpiderik ere).*

Lizitazaileek egindako eskaintzak ondorengo dokumentuak barneratuko ditu, baldintza agiriko 14. atalean zehaztutako epigrafeekin eta adierazitako hurrenkeran.

**C GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.**

Honako dokumentu hauek bildu behar dira:

1.- Eskaintza ekonomikoa, baldintza-agiri honetako I. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

(Baldintza-agiri honetako eranskinetan ezarritako ereduak bete ezean, eskaintzak lizitaziotik baztertu ahalko dira.)

2.- Entregatze edo emate epea: behar den egun kopurua eskatutako termoak haurreskoletan banatzeko.

3.- Berdintasun Plana.

4.- Enpresan gizonetik dagoen emakume proportzioa.

5.- Enpresan desgaitasun egoeran dagoen pertsonen proportzioa.

6.- Kontratuaren exekuziora atxikitutako pertsona kopurua.

**D GUTUN-AZALA: LAGINAK.**

PTPn (Preskripzio Teknikoen Pleguan) zehaztutako baldintza minimoak betetzen direla egiaztatzeko eta produktuen kalitatea balioesteko, lizitazioan aurkeztutako termoaren lagin bat aurkeztu beharko da nahitaez. Laginik entregatzen ez bada, ez da balioespen teknikorik egingo.

Honako hauek jasoko dira nahitaez:

- 1.- Dokumentu bat, gutun-azalean (edo kutxan, hala badagokio) jasotzen diren ondasunen zerrendarekin.
- 2.- ESKAINTZEN DIREN ONDASUNEN LAGINAK.  
Aurkeztutako lagina Haurreskolak Partzuergoaren eskura geratuko da, kontratua formalizatzen den arte. Behin kontratua formalizatuta, lagina itzuliko da, interesdunak kontratuaren arduradunari aldeztu eskatuta.

#### 23.4.- Aurkezteko lekua:

- **Entitatea:** HAURRESKOLAK PARTZUERGOA.
- **Helbidea:** Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina, 1
- **Herria eta posta-kodea:** Eibar – 20600

#### 23.5.- Eskaintza postaz igorritz gero, hala egin dela abisatzeko bitartekoak:

- Telefonoa: 943.82.14.96
- Faxe: 943.12.07.37

Epemuga (eguna eta ordua): 2019ko urtarrilak 18ko 13:00 orduak arte.

- Helbide elektronikoa: prebentzioa@haurreskolak.eus. (Eskaintzak postaz bidaltzen badira adierazitako epearen barruan, egun horretan bertan posta-bulegoan zein egunetan jarri den egiaztatu eta jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari posta elektrikoaren bidez, baita ere ezinbestekoa izan da telefonoz jakinaraztea hurrengo zenbakira deituta, 943 82 14 96. Mezuari erantsiko zaio posta-bulegoan entregatu dela egiaztatzen duen kopia eskaneatua. Bertan, datu hauek jaso behar dira: zer bidali den, noiz (eguna eta ordua), igortzailea, hartzailea eta posta-kodea). Betekizun bi horiek betetzen ez badira edo bidalketaren komunikazioa eskaintzak jasotzeko finkatutako epea amaitutakoan jasotzen bada eskaintza ez da onartuko.

**23.6.- Lizitatuak zenbat denboratan eutsi behar dion eskaintzari:** bi (2) hilabete, eskaintza ekonomikoa irekitzen denetik zenbatzen hasita; horri beste hamabost egun baliodun gehitu beharko zaizkio, SPKL-aren 149.2 artikuluan aipatutako irizpideak (balio anormal edo neurrigabeak) bete behar direnean.

**23.7.- Aldaerak onartzea:** Ez.

**23.8.- Eskaintzak jendurrean irekitzea:** Bai.

**C gutun-azala irekitzeko lekua:** Kontratatuaren profilean argitaratuko da.

#### 24.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, haien garrantziaren arabera, handienetik txikienera, eta eman zaien haztapenaren arabera. Guztizko puntuazioa: 100 puntu (a) eta b) letretako multzoei dagozkien haztapenen baturak eta guztizko puntuazioak berdinak izan beharko dute beti):

a) **Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak: 30 puntu.**

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATZEKO ASPEKTUAK)	GEHIENEZKO PUNTUAK	AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
<b>1.- Termino ezaugarriak eta kalitatea</b>		Aurkeztutako produktuaren azalpen eta deskribapen memoria gutxienez

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tenperaturen ikerketa edo azterketa</li> <li>• Termoaren ezaugarriak eta kalitatea</li> <li>• Baldintza teknikoan agirian ezarritako zehaztapenetan eskatzen diren gutxienekoak baino altuagoak diren produktuen ezaugarri edo prestazioak</li> </ul>	7,5 puntu 5 puntu 2,5 puntu	materialen ezaugarriak, konposizio edo osaketa eta abar zehaztuta.
<b><u>2.- Eman beharreko zerbitzuaren kalitatea</u></b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzuaren ezaugarriak</li> <li>• Giza-taldea</li> <li>• Kaudimen teknika</li> </ul>	2,5 puntu 2,5 puntu 2,5 puntu	Zerbitzuaren ezaugarrien azalpen-memoria.
<b><u>3.- Harreman eta komunikazioetan euskararen erabilera</u></b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara Plana edukitzea</li> <li>• Dokumentazioetan, ziurtagirietan, harremanetan, ... euskararen erabilera</li> </ul>	4 puntu 3,5 puntu	Haurreskolak Partzuergoa eta esleitua izan den enpresaren arteko komunikazioen ezaugarriei buruzko azalpen-memoria.

**b) Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak: 70 puntu.**

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATZEKO ASPEKTUAK)	GEHIENEZKO PUNTUAK
1.- Termoaren prezio unitarioa, BEZ gabe	50 puntu
2.- Entregatze edo banatze epea: behar den egun kopurua eskatutako termoak haurreskoletan banatzeko	10 puntu
3.- Berdintasun Plana	2,5 puntu
4.- Enpresan gizonetikiko dagoen emakume proportzioa	2,5 puntu
5.- Enpresan desgaitasun egoeran dagoen pertsonen proportzioa	2,5 puntu
6.- Kontratuaren exekuziora atxikitutako pertsona kopurua	2,5 puntu

1.- Termoaren prezio unitarioa, BEZ gabe. 50 puntu.

Eskaintza ekonomikoenari 50 puntu.

Eskaintza ekonomikoenari esleituko zaio balorazio handiena. Gainerako eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Eskaintza baxuenaren zenbatekoa}}{\text{Baloratu beharreko eskaintzaren zenbatekoa}} \times 50$$



2.- Entregatze edo banatze epea: behar den egun kopurua eskatutako termoak haurreskoletan banatzeko. 10 puntu.

Entregatze edo banatze epea modu honetan kalkulatu da:

Entregatzen edo banatze epea (egunetan) laburrena duen enpresa lizitatzailerari 10 puntu emango zaizkio. Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Entregatze denbora laburrena duen enpresaren entregatze denbora (egunetan)}}{\text{Baloratu beharreko enpresaren entregatze denbora (egunetan)}} \times 10$$

3.- Berdintasun Plana: 2,5 puntu.

2,5 puntu emango zaizkie Berdintasun Plan bat landuta duten enpresei eta 0 puntu planik ez duten enpresa lizitatzailerari.

4.- Enpresan gizonetikiko dagoen emakume proportzioa. 2,5 puntu.

Enpresako lanpostuen zerrendan gizonetikiko dagoen emakume proportzioa ondorengo moduan kalkulatu da:

$$\text{Enpresako emakume proportzioa} = \frac{\sum \text{Emakume kopurua}}{\text{Lanpostu kopuru totala}} \times 100$$

2,5 puntu emango zaizkio emakumeen proportzio handiena duen enpresa lizitatzailerari. Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzan dagoen emakume proportzioa}}{\text{Emakume proportzio handiena duen enpresan dagoen emakume proportzioa}} \times 2,5$$

5.- Enpresan desgaitasun egoeran dagoen pertsonen proportzioa. 2,5 puntu.

Enpresako lanpostuen zerrendan dagoen langile desgaituen kopurua ondorengo moduan kalkulatu da:

$$\text{Enpresako langile desgaitu proportzioa} = \frac{\sum \text{Langile desgaitu kopurua}}{\text{Lanpostu kopuru totala}} \times 100$$

2,5 puntu emango zaizkio desgaitu langile proportzio handiena duen enpresa lizitatzailerari. Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzan dagoen langile desgaitu proportzioa}}{\text{Langile desgaitu proportzio handiena duen enpresan dagoen langile desgaitu prop.}} \times 2,5$$

6.- Kontratuaren exekuziorako atxikitutako pertsona kopurua. 2,5 puntu.

2,5 puntu emango zaizkio kontratura pertsona gehien atxikituta dituen enpresa lizitatzailerari.

Gainontzeko eskaintzak aurrekoarekiko proportzionalki baloratuko dira, ondorengo formula honen arabera:

$$\text{Puntuak} = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzan atxikitutako pertsona kopurua}}{\text{Pertsona gehien atxikituta dituen enpresan atxikitutako pertsona kopurua}} \times 2,5$$

## **25.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK BATUTA, GUTXIENEZ LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIO-TARTEA:**

SPKL-ko 146.3 artikulua araberan, balorazio orokorrerako onartuak izateko, formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideetan, lizitzaileen gutxieneko puntuazio bat lortzea eskatuko da. Hortaz, 20 puntu erdiesten ez dituzten eskaintzak Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko.

## **26.- BALIO ANORMAL EDO NEURRIGABEAK:**

Bai. Administrazio Publikoen kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onartzen duen urriak 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 85 eta 86 artikuluetan zehazten diren kasuetan, eskaintzek gutxiegizko balioak aurkezten dituztela kontsideratuko da.

Gutxiegizko balioak dituzten eskaintzak direnean, SPKL-aren 149.4 artikuluan ezarritako prozedura beteko da.

Gutxiegizko balioak dituzten eskaintzak ez dira sartuko prezioen balorazioan, kontratazio-organoak onartu ezean, eta aurrez irizpide horiek justifikatu ezean.

**27.- DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK:** Dokumentu administratiboak kontratua adjudikatu aurretik aurkeztu beharko dira.

**28.- ENKANTE ELEKTRONIKOA.** Adjudikazioa egiteko, enkante elektronikoa egingo da, honako elementu hauen arabera: Ez da egingo enkante elektronikorik.